

egin & ekin

ZORIONAK IRABAZLEEI ETA ESKERRIK ASKO ZUEN LAN BIKAINAGAITIK!!

Egin eta Ekin programa osatzen dugun guztion artean egoera honi aurre egingo diogula badakigu eta indarberrituta bueltatuko gara datorren ikasturtean.

Eutsi goiari eta bitartean... Egin eta Ekin!!

Benetan berezia izan da 2019-2020 ikasturtea. Bizitza osoan gogoratuko ditugun bizipenak izan ditugu. Martxoaren 13az gerotzik, COVID-19 dela eta mundu mailako egoera guztiz apartekoa bizi izan dugu, eta erabat aldatu da gure egiteko eta jokatzeko modua.

Nork esango zigun?

Egoera honek proban jarri gaitu pertsona eta gizarte bezala, eta guztiok gugandik dugun onena ateratzea eskatu du, arrakastarako aukerak maximoak izan zitezten.

Gutako bakoitzak bere lana baliabide mugatuekin egiten jarraitu du kasu askotan, baina baliabiderik eza borondate-, ulermen-, elkartasun- eta ahalegin-dosi askoz osatu da. Denok ontzi berean gindoazen eta, beraz, norabide berean elkarrekin arraun egin behar genuen.

Badakigu dena eta gehiago eman duzuela. Eta, gainera, denoi lagunduko zigun baldintza bat betetz, nekatu arte errepikatu dena: gera zaitez etxean. Horregatik gure esker ona. Eskerrik asko, benetan, denbora zail honetan izandako erantzunagatik.

Ikasturte berezi honek egoera berrietara moldatzera behartu gaitu. Pena handiz ezin izan dugu merezitako sari banaketa ospatu, ezin izan dugu elkar txalotu eta zuen lana eskertu. Baina, **Egin eta Ekin** programaren 12. edizio honetan lehiaketara aurkeztutako proiektu guztiak Bizkaiaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailak ebaluatu ditu, eta beste urte batez kategoria bakoitzeko irabazleak aurkeztu dira.

Aurten 36 ikastetxek parte hartu dute, guztira 1.530 ikasle izan direlarik. Guztira 167 asmakizun eta 185 negozio plan burutu dituzue.

Ikastetxe parte hartzaileak 2019-2020 ikasturtean

- Ander Deuna ikastola (Sopela)
- Arratia (Igorre)
- Azkorri (Getxo)
- El Regato (Barakaldo)
- Arrigorriaga BHI
- Balmaseda BHI
- Benito Barrueta-Ignacio Arozena BHI (Bermeo)
- Berriz BHI
- Botikazar BHI (Bilbao)
- Briñas BHI (Santutxu)
- Elorrio BHI
- Erandio BHI
- Ermua BHI
- Fray Juan de Zumarraga BHI (Durango)
- Iurreta-Orobiagoitia BHI (Iurreta)
- Julio Caro Baroja BHI (Getxo)
- Lekeitio BHI
- Markina BHI
- Muskiz BHI
- Ondarru BHI
- Soloarte BHI (Basauri)
- Txorierrri BHI (Derio)
- Urbi BHI (Basauri)
- Uribarri BHI (Basauri)
- Asti Leku ikastola (Portugalete)
- Begoñazpi ikastola (Bilbao)
- Larramendi ikastola (Mungia)
- Lauaxeta ikastola (Amorebieta-Euba)
- Lauro ikastola (Loiu)
- Seber Altube ikastola (Gernika)
- JM de Artxanda (Bilbao)
- Ntra. Sra. de Europa (Getxo)
- Ntra. Sra. del Carmen (Bilbao)
- San José de Calasanz (Santurtzi)
- San Viator (Sopuerta)
- Trueba de Artxanda (Bilbao)





Luis Briñas BHIko ikasleak.



San Viator Ikastetxeko ikasleak.

2019-2020 ikasturtean saritutako lanak



ASMAKIZUNEN MODALITATEA

1. SARIA

BULL POOM PROIEKTUA

Gaur egun jazarpen arazo asko ikusten dituzte munduan. Hori dela eta, arazo horri erantzuteko ikastoletan jartzeko makina bat sortu dute. Makina hori edozein ikasle erabiltzean, modu anonimoan, irakasleen gelara abisua helduko da jazarpena edo bullying-a ekiditeko.

Goiburua: **“Bizi hobetza edukitzeko eta jazarpenarekin akabatzeke, bull-poom erosi eta pozik bizi”.**

Seber Altube Ikastola, DBH 2.:

Ines Allika, Intza Basabe, Leizuri Arruabarrena eta Aizarotz Elizaga.

Tutorea: Iraia Goiriena.



ACCESITA

ISILTAGAILUA

“STS”

Proiektu honek kutsadura akustikoa sahiesten laguntzen du. Ikasgelan zaratak ekartzen dituen lan giro txarra kontuan hartuta, isiltasuna lortzeko gailua asmatu dute.

Goiburua: **“Save the Silence”.**

Lauaxeta Ikastola, DBH 2.:

Iria Hueto, Ainhoa López, Maren Jimenez eta Ardaitz Villorojo.

Tutorea: Mikel Totorika.






NEGOZIO PLANAREN MODALITATEA

1. SARIA DBHko 3. eta 4. mailako Kategorian

BASURECO PROIEKTUA



Basur-ECOk barruan utzitako zaborra konprimitzen duten paperontziak eskaintzen ditu, ondoren hondakin konprimitu horiek hainbat enpresari saltzeko (altzariak, konposta eta abar egiteko).

Azkorri Ikastetxea, DBH 4.: Ainhoa Abad, Nora Andrade, Uxue Carballo eta Uxue Cordero.

Tutorea: Rubén Elortegi.



ACCESITA DBHko 3. eta 4. mailako Kategorian

ITSUENTZAKO BETAURREKOAK “Ikusi, entzun eta ekin”



Itsuek garraio ezberdinetan dituzten zailtasunetatik habiatuz, talde honek itsuei ingurua deskribatzeko betaurreko batzuk asmatu ditu. Betaurrekoak, itsuari ingurua deskribatuko dio dispositibo txiki baten laguntzaz. Deskribapen hori belarriaren barruan jarriko duen kablerik gabeko aurikularretara iritsiko zaio.



Ermua BHI, DBH 4.: Naroa Jimenez eta Saioa Aransolo.

Tutorea: Ibane Iturate.

1. SARIA BATXILERGO Kategorian

TRASH & GO PROIEKTUA



Plastikozko hondakinen erabilera eta birziklapen ezari buruz sentsibilizatzeko helburuagaz, aplikazio bat sortuko dute non erabiltzaileek argazki ezberdinak partekatzen dituzten lekuz kanpo aurkitzen duten hondakinagaz eta zakarrontzi egokian sartzen duten bitartean. Horrela sarituak izaten dira erabiltzaileak.




Begoñazpi Ikastola, 2. batxillergoa: Nerea Arnaiz, Asier López, Henar Gómez, Jon Ander Mimenza eta Maialen Salvador.

Tutorea: Itziar Otero.

ACCESITA BATXILERGO Kategorian

SCAPE ROOM SOZIALA

“¡Scape room arazoei boom!”



Jazarpen, indarkeri, arrazakeria... eta abar konpontzeko zerbait egin behar zutela jakinik, gaur egun gazteen artean modan dagoen “scape room” bat sortzea erabaki zuten, gazteak biktimen posizioan jartzeko eta haiek sentitzen dutena sentiarazteko, bai psikologikoki eta bai fisikoki. Era honetara, jazarpen kasuak murrizten lagun dezaketela uste dute.



Bermeo BHI, 2. batxillergoa: Carmen Martínez, Iker Malumbres, Adrian Ruiz, Unai Begoña eta Eneko Torre.

Tutorea: Estibaliz Aranburu.

Burutü, Josu Bergara

Ekintzailtza, Publizitate eta Komunikazio estrategikoa

Bilbon dagoen markagintza eta publizitate konsultoretza da Burutü. Markak sortu eta kudeatzen dituena

Zein izan da zure proiektua aurrera eramatera bultzatu zaituena?

Gure proiektua aurrera eraman dugu guk nahi genuen moduen lan egiteko askatasuna nahi genuelako. Guk erabakitzen dugu proiektuak noiz, nola eta non gauzatu behar ditugun.

Horrez gain, hobetzeko eta gehiago ikasteko etengabeko motibazioa dugu. Gure ogibidea maite dugunez, gauzak gure erara egiten saiatu gara. Gure estilo propioa sortzeko nahia izan dugu.

Zure ustez zeintzuk dira BURUTUn lan egiteko gaitasun pertsonal garrantzitsuenak?

Alde batetik, sormena eta irudimena izatea, bide berriak asmatu zein erakitzeko. Publizitatean oso garrantzitsua da sormena edo kreatibitatea lantzea.



Beste alde batetik, izaera apala eta lantaldean aritzeko jarrera. Proiektuak lankideen artean gauzatu ditugu, ezinbestekoa da besteengan konfiantza izatea, laguntza eskaintzea eta parte hartzea.

Hezkuntzari begira, zer diozu ekintzailtasuna bultzatzeaz?

Ikasleengan ekintzailtasuna sustatzea oso ondo iruditzen zait; enpresa, erakunde, elkarte edo bestelako alor baten bide berriak egiten dituzten pertsonak izatea garrantzitsua delako. Nire ustez, gaur egungo gizartean pertsona arduratsuak, ekintzaleak, kritikoak eta iritzi propioa dutenak behar ditugu.

Rubén Elortegi, Azkorri Ikastetxea.

Berdintasunerako aipamen berezia Egin eta Ekin 2019-2020

Zelan laburtuko zenuke Egin & Ekin programan aurten bizi izan duzun esperientzia?

Aurten esperientzia aparta izan da Egin eta Ekin programan, ikasleek motibazio-maila handiarekin garatu dituzte proiektuak, eta gai izan dira maila teorikoan aztertutako kontzeptu gehienak praktikan jartzeko, negozio-plan bat egiteak eta erakunde batean genero-berdintasunerako plan bat garatzeak zer esan nahi duen jakiteko.

Pena izan da sari-banaketa ezin izan izana COVID-19aren ondorioz, beste batzuetan bezala, baina hala ere asko gozatu dugu jasotako bi sariez.

Uste al duzu Egin & Ekin proiektuak berdintasuna bultzatzeko elementurik baduela? Uste al duzu oraindik horrelako sarien beharrik badela?

Egin eta Ekineko proiektua emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko esparru egokia dela uste dugu ze enpresa munduan ere genero indarkeria, lan baldintzak,

genero rola eta hainbat arlotan lan handia egiteke dago gaur egun.

Nahiz eta jakin gizartea badoala apurka apurka kontzientzia hartzen genero indarkeria inguruan, uste dugu enpresa arloan ere aurrerapenak egin behar direla eta sentzu horretan honelako sariak bere eragina izan ahal dutela.

Zure iritziz, programak lantzen dituen gaitasunak baliagarriak eta erabilgarriak ikusten al dituzu?

Azkorri ikastetxean uste dugu honelako programak oso ondo datozela ze ikasleentzat balio oso interegarriak lantzen dituzte:

- Taldean lan egitea.
- Ahalegina eta zailtasunak gainditzea.
- Erabakiak eta erantzukizunak hartzea.

Azkorritik benetan gomendatzen dugu zentzorei honelako esperientzatan lan egitea ze ikasle askorentzat motibazio izugarria suposatzen du honelako proiektuen bidez aritzea zenbait ikasgaitan.

BIC EZKERRALDEA



BIC Bizkaia Ezkerraldearen helburu nagusia enpresak sortzea, dibertsifikatzea eta finkatzea da, Ezkerraldean eta Meatzaldeen aberastasuna eta enplegua sortzeko xedez.

BIC Bizkaia Ezkerraldeak Ilgner Enpresa Haztegia du, 2.500 m²-ko azalera eta enpresetarako 54 modulu dituen kokaleku historiko erabat berriztatua. Bertan, guztiek erabiltzeko ekitaldi aretoa, prestakuntza gelak, bilerak egiteko gelak, ekintzailtzarako gelak edo aparkalekua daude, besteak beste. Une honetan, Ilgner haztegiak 25 enpresa berritzaile jasotzen ditu.

Bic Bizkaia Ezkerraldeak Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza du, Enpresen Garapenerako

Euskal Agentziaren, SPRIren, bitartez, eta erakundearen bazkide gisa, euren laguntza programa guztiak eskaintzen dizkie ekintzailerari eta enpresei.

